

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

#### **Fabrikazioaren zerga berezien administrazio egintzak jakinaraztea**

Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezkoa izan denez, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahalleginak egin ondoren, iragarki honen bidez dei egiten zaio Bodega Andagoyari (IFZ: 01322494) edo haren ordezkariari, ager dadin, alkoholaren eta edari alkoholodunen gaineko zergaren zehapen prozedura ireki dela jakinaraz dakion.

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Arabako Foru Aldundiaren Fabrikazioaren Zerga Berezien Bulego Kudeatzailean agertzeko (Ogasun Zuzendaritza. Samaniego kalea, 14. Gasteiz), zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduraren berri eman diezaion. Interesdunak edo haien ordezkariak astelehenetik ostiralera 08:15etik 14:30era aurkeztu ahal izango dira.

Adierazitako epea igarota, interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 29a

*Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua*  
**ANA MARÍA ZUBÍA AGUILLO**